

"Pertsonaren" balioari lotuta orain aurkezten ditugun gogoeten hautaketak joan den 2017ko uztailean eta azaroan argitaratutakoa osatzen du.

Lortu behar den lehen onura, lehen erremedioa, ezinbesteko erremedioa, beharrezkoa, gizartearentzat premiazkoa, kontzientzia eta zentzu morala lehengoratzeari.

(El Hombre Cooperativo de Joxe Azurmendi. Capítulo V Dignidad del hombre. 3.8. Ser, más que tener)

PERTSONARI buruzko beste pentsamendu batzuk:

Hasi eta buka dezagun gizakiarengan. Natura, bere bizitza, bere eskubide eta bere betebeharrak gehiago kontrolatzen dituen gizona; hitz batean, Gizakiago den norbait. p035

Bere duintasunaz ohartzen den edo besteen menpe egon nahi ez duen gizakiak edo herriak bere inteligentziaren eta bere borondatearen lanketa eta garapena bultzatu behar du, ezer baino lehen. p202

Ezin da justiziaz jardun gizakien duintasuna zer den ez dakitenen artean. p003

Kontua da jakitea ea duintasunez bizi gaitezkeen, eta duintasunez bizitzea da geure buruaz baliu ahal izatea. Alderdi horri dagokionez, edozein paternalismok ezin gaitu pozik utzi, eta paradisu itxiek ere ezin gaituzte ase utzi, izaki libre garen heinean. p009

...Horixe da baieztatzen eta desiratzen duguna, kontuan izanik herri honen espirituren berezitasunak zeintzuk diren: ekintzara jotzea espekulaziora bainoago; aurrera egitera, menperatzera bainoago; askatasuna, foruak eta lanean nahiz lanaren alde nork bere burua forma askotan gauzatzeko bizi espazioa maitatuz eta arretaz zainduz, denon mesedetan. p546

Herri heldua izateko, kolektibo infantila ez izateko, gehiago baloratu behar dugu gure harremanak eta elkarbizitza arautzen dituen kontzientzi egoera oparotasunaren eta prestigio hutsalaren beste zeinu batzuk baino.

(El Hombre Cooperativo de Joxe Azurmendi. Capítulo V Dignidad del hombre. 3.8. Ser, más que tener)

"Cooperación" aldizkaritik aterata:

C32- 1963/04

Egiazki nahi badugu inguruan ditugunekin bakean eta harmonian bizi, ohitu egin beharko dugu besteen iritzia entzuten eta errespetatzen. Hori haur eskoletatik hasita erakutsi beharko litzateke, gizartean bizitzeko baimena izateko ezinbesteko baldintza moduan.

179

C33- 1963/05

Gure etorkizunaren gakoa, inposaketa arrotzetatik kanpoko giza ordena batean bermatu beharreko potentzia, KONTZIENTZIAK dira.

186

C41 – 1964/01

Gizakion berezko balioak ez dira gure estatistiketan islatzen, eta ez dira bezala baloratzen. Beharrezkoa da erne egotea, deshumanizatzeko arrisku handia baitauek.

247

C45 – 1964/05

Adimena da gizakia gidatu behar duen gaitasun gorena. Gizakiaren arrisku nagusia da bere ahalmen gorenak ez lantzetik datorrena. Edozein lekutan egon daitezkeen garatu gabeko lekuez arduratu behar dugu, baina batez ere kapelek, txapelek estaltzen dituztenez...

278